

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

389/2025 Foru Agindua, uztailaren 3koa. Itxaso Berasategui Saez de Castillo andrea Artziniegako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta

Urtarrilaren 9ko 7/2025 Foru Aginduaren bidez, Itxaso Berasategui Saez de Castillo izendatu zen Artziniegako Udaleko idazkari lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko.

Ekainaren 26ko idazkiaren bidez adierazitakoaren arabera, aipatutako funtzionarioak, ekainaren 24an, udalari jakinarazi zion borondatezko baja hartzeko asmoa zuela 2025eko ekainaren 25etik aurrerako ondorioekin, eta Artziniegako Udalak horren berri eman zion Lurralde Orekaren Zuzendaritzari.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluak aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko bigarren apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Itxaso Berasategui Saez de Castillo Artziniegako Udaleko idazkari lanpostutik kentzea, 2025eko ekainaren 25eko ondorioekin. Lanpostu hori bitarteko izendapenaren bidez betetzen zuen urtarrilaren 9ko 7/2025 Foru Aginduaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau dagozkion ondorioetarako jakinaraztea Artziniegako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 3a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA